



Konparazioetan erabiltzen da “**bezala**”,  
oro har.

Hona adibide bat:

- Kanabera **bezala** dardaratzen da Patxi,  
jendaurrean hitz egin behar duenean.



# Sakonean, perpaus hau dago "**bezala**" horren baitan:

- NOLA dardaratzen den kanabera, HALA dardaratzen da Patxi, jendaurrean hitz egin behar duenean.



Zenbaitetan, hala ere, konparazioetarako erabili ordez, beste adiera batzuetarako erabiltzen da 'bezala', gaztelaniaren interferentziaren eraginez. Hona erabilera oker batzuk:

- \*Duela lau urte hasi nintzen Institutuan **irakasle bezala**.
- \***Atzelari bezala** famatua izan zen Juan Antonio Fares, Mexicon eta Kuban, 1930eko hamarkadan.
- \*"**Mendilatz**" **bezala** ezagutzen den orubean eraikiko dira babes ofizialeko etxeak.



Gaztelaniazko **como** adberbioaren beste adiera batzuen kalkoak dira adibide horiek guztiak. Honela behar dute esaldi horiek euskaraz:

- Duela lau urte hasi nintzen Institutuan irakasle.
- Atzelari **modura / moduan / gisa / gisara** famatua izan zen Juan Antonio Fares, Mexikon eta Kuban, 1930eko hamarkadan.
- "**Mendilatz**" esaten dioten orubean eraikiko dira babes ofizialeko etxeak.



## Beste erabilera oker bat:

- Gaztelaniaz (tales) como, euskaraz **\*bezalako**.

Hona adibide okerra:

- **\*Beira-zuntza**, poliamida eta erretxina **bezalako** materialak erabiltzen hasi zen eskultorea.



## Hobe da adibidegile hauetakoren bat erabiltzea:

- hala nola
- esate baterako
- besteak beste
- eta halako
- eta antzeko
- ...

## Hona aukera batzuk, aurreko esaldia zuzentzeko:

- ✓ Beste material batzuk erabiltzen hasi zen eskultorea, **hala nola** beira-zuntza, poliamidak eta erretxina.
- ✓ Beira-zuntza, poliamidak, erretxina **eta antzeko / halako** materialak erabiltzen hasi zen eskultorea.